



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko martxoaren 3a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Hasier Larretxea

(Arraioz, Nafarroa, 1982)

Hasier Larretxea Gortari Arraiozen, Baztango haranean jaio zen, eta aspaldian Madrilén du bizibidea.

Narratiban argitaratu ditu *Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da* (Alberdania, 2024), autobiografiaren eta egunerokoaren arteko hibridazioa, *El lenguaje de los bosques* (Espasa, 2018), natura eta familiari buruzko saiakera literarioa eta *Larremotzetik* (Erein, 2014), liburu autobiografikoa.

Poesian *Hijos del riesgo* (Candaya, 2023), *Hezurrezko kaiolak* (Amaiurko Gaztelu Elkarte, 2022), *Otro Cielo* (Espasa, 2022), *Ihes baten lausoa* (Balea Zuria, 2021), *Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira* (Pamiela, 2018), eta beste hainbat argitaratu ditu.

Literatura, euskal herri kirolen soinuak (aizkora, harria, zerra), herri bizitza (intxaurrak, zintzarria) eta elektronika uztartzen dituen irakurketak burutzen ditu, bere aita Patxirekin (ibilbide luzeko herri kirolaria eta herri kirol klub bateko zuzendaria), bere ama Rosariorekin eta bere senarra Zuri Negrinekin.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuako Memoria eta Bizikidetzta, Kanpo Ekintza eta Euskara Departamentuarekin elkarlanean, literatura- eta sormen-tailerrak egiten ari da.

Guztia urruntzea da



Zerbait bada orrialde hauen muinean, distantziaren ideia atzemanezina da hori. Hiru atalek osatzen dute liburua —Klorodun itzalak; Korapilatutako hariak; Sua itzaltzen bada— eta begirada batek lotzen ditu hirurak; zerura begiratzen du poetak, ur zuloetara, iragana den larre kotatu lohitura. Haurtzaroko minez ari da eta gaurko argi izpiez, belaunikatzeaz eta besarkatzeaz, unean izendatu ezin izan zenak utzitako hutsuneaz. Bertze bizitza bat kausitzeko irrikan, bizitza honen beraren baitan.

Hasier Larretxearen argitalpenak

Azken bala = la última bala (2008)

Atakak (2011)

Larremotzetik (2014) **M LAR**

Niebla fronteriza (2015) **P LAR**

Batzuen ametsak bertzeen zelai zulatuak dira (2018) **P LAR**

El lenguaje de los bosques (2018) **M LAR**

Ihes baten lausoa (2021) **P LAR**

Hezurrezko kaiolak : Amaiurtik konstelazioak (2022) **P LAR**

Hijos del peligro (2023) **P LAR**

Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da (2024) **M LAR**

Guztia urruntzea da (2025) **P LAR**

Erabilitako iturriak

Hasier Larretxea (Web ofiziala)

<https://www.hasierlarretxea.com/>

Susa

<https://susa-literatura.eus/liburuak/poes101>